



Andoaingo Udala

Kodea:	2026AAH20017
Zk. / Nº	2026/1614
Data / Fecha	2026/06/09
Ebazpena / Resolución	

Alkatetzaren ebazpena

Ikusirik, 2026ko uztailaren 2tik 5era ospatuko diren Kaletxikiko jaien antolaketa batzordeak 2026-03-30 datarekin aurkeztutako jai egitaraua eta aurrekontua.

Ikusirik, Hezkuntza eta Kultura Teknikariaren txostena.

Ikusirik, udal Kontuhartzaileak egindako kontrako txostena.

Ikusirik, udal Idazkariak egindako kontrako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bitartez, ondokoa

ERABAKI DUT

1. Onartzea, Andoaingo Udala eta ONTZA S.R.D. artean proposatutako lankidetzaren hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: 2026ko kaletxikiko jaiak.

Dirulaguntza: 6.138 €.

Partida: 1.0500.481.338.00.02 2026

Indarraldia: 2026-01-01tik – 2026-12-31ra.

2. Hezkuntza eta Kultura lansaileko zinegotzi ahaldunari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

3. ONTZA S.R.D. bidaltzea hitzarmenaren bi ale, Hezkuntza eta kulturako zinegotzi ahaldunak sinatuta.

4. 2026ko uztailaren 2tik 5era ospatuko diren Kaletxikiko jaien antolaketa elkarteak aurkeztutako jai egitaraua eta aurrekontua onartzea.

5. Onartutako dirukopuru honen %60, hau da, 3.682,80€ ONTZA S.R.D. elkarteari ordaintzea onartzea. Elkarteari utzitako udal materialaren bat egoera txarrean edo apurtuta bueltatuko balute, dirulaguntzaren bigarren zatirengatik jaso beharko luketen dirukopurutik deskontatuko litzateke konponketa horren gastua. Iritsiko ez balitz, diferentziaren ordainketa egin beharko lukete.

6. Dirulaguntzaren bigarren zatia ordaindu ahal izateko, jaietako memoria, likidazioa eta bere faktura egiaztagarriak, jaiak amaitu eta hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko dituzte, eta txosten teknikoaren ondoren ordainduko da.



Andoaingo Udala

7. Kontuan izan behar dituzten sarrera eta gastuen balantzea ondo zerrendatuta eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoarekin aurkeztuko da, eta jai batzordeko ordezkariak sinatuta egon beharko du. Izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da, eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa.

8.- Eskatutako behar, material eta laguntzak, zehaztuko dira.

9.- Udal txozna erabiltzeko behin-betiko baimena ematea. Baimena jai egunetara lotzen da. Ondoren, berehala desmontatu beharko dutelarik.

ONTZA S.R.D. elkarteari jakinaraztea Andoaingo Udalak txoznaren erabilerarako onartuak dituen irizpideen 5. atalean diona bete beharko dutela, hau da, txoznaren erantzukizun zibilaren poliza aurkeztu beharko dutela Bastero kulturguneko bulegoetan.

ONTZA S.R.D. elkarteari jakinaraztea Andoaingo Udalak onartuak dituen irizpideen 2.3. atalak diona bete beharko dutela, hau da *“eskatzailleak berak jasoko eta garraiatuko du Bachiller pabelioitik behar den lekuraino. Berdin egingo du entregatzeko unean”*. Hau koordinatzeko, noiz jaso eta noiz itzuli, Zerbitzuetakako lantsailako arduradunarekin (Borja Estebez 943 300 830) koordinatu beharko dute.

ONTZA S.R.D elkarteari jakinaraztea,txoznan kuadro elektrikorako egokia den su-itzalgailu bat (CO2 motatakoa)eduki beharko dutela.

10.- Kaletxikiko 24. portaleko bajuko lokalaren barruan, jendea kalean geratzen delarik, txozna-barra bat jartzeko baimena ematea.

ONTZA S.R.D. elkarteari jakinaraztea Andoaingo Udalak txoznaren erabilerarako onartuak dituen irizpideen 5. atalean diona bete beharko dutela, hau da, txozna-barra honen erantzukizun zibilaren poliza aurkeztu beharko dutela Bastero kulturguneko bulegoetan.

ONTZA S.R.D elkarteari jakinaraztea,txoznan kuadro elektrikorako egokia den su-itzalgailu bat (CO2 motatakoa)eduki beharko dutela.

11. *Txoznaren instalazioa arautzen duen Udal Ordenantza ondo bete daitezela eskatzea eta zaborrak eta hondakinak uzteko orduan, kale horretan Udalak eguneroko zaborrentzat jarrita dituen edukinontzietan uztea eskatzea.*

O zero zabor eta garbitasunagatik eta segurtasuna kontuan izanik, kristalezko ontziak ez erabiltzea eta berrerabili daitezkeen edalontziak erabiltzea eskatzen zaie txoznako ordezkari.

Eta, txoznetako musika gaueko programaren azken ekitaldia bukatzen den momentu berean itzuliko den betebeharraren, eta txozna berriz, gaueko ekitaldia bukatu eta 45 ´geroago ixtearena.

12.- *Horrez gain,baldinza hau bete beharko da:Txoznaren pertsonen duintasunaren aurkakoak diren kartelak edo ikurrak,zein indarkeria bultzatzen dituztenak ez jartzea.Baldintza hau bete ezean,emandako baimena kendu egingo da.*

13.- *Andoaingo Txosna Batzordeak Udalarekin eta Mugimendu Feministarekin osatutako*



Andoaingo Udala

eta adostutako Eraso Matxisten Aurkako protokoloa izango du, eta txosna gunean zain inguruan protokolo hori betearaziko du. Horrez gain, Udalak tabernariak eta jaietan parte hartzen duten hainbat eragile informatuko eta formatuko ditu protokoloa aplikatzera deituaz.

14.- Jai batzordeari eskatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen diren jendeaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arutzen dituen 10/2015 Legearen helburua betetzea, hau da, ziurtatzea jendeaurreko ikuskizun eta jolas-jarduerak garatzerakoan bermatzen direla partaide eta ikusleen segurtasuna eta osotasuna, eta herritarren bizikidetzaren ere, eta ez dela ordena publikoa hausten.

15.- Jai Batzordeari jakinaraztea suziriak botako dituen pertsonaren datuak jaiak hasi aurretik kultura lansailan jakinarazi behar dituztela. Eta jai batzordeari jakinaraztea ere debekatua dagoela lehergai edo piroteknikako gai arriskutsuak erabiltzea, ez badituzte Euskal Erkidegoan piroteknia artifiziozko ikuskizunak arautzen dituen, 1998.10.20an EHAOan argitaratutako Eusko Jaurlaritzaren irailaren 22ko 240/1998 Dekretuaren I eranskinak ezarritako baldintzak betetzen.

16.- Kaletxikiko jaien egitaraua eta behar zehatz guztien kopia Obra eta Zerbitzuak eta Udaltzaingoa lansailetara helaraztea.

17.- Akordio honen berri ematea jaien antolaketa batzordearen ordezkariari, eta erabaki honen berri izan bezain laister, aipatu ordezkariari eskatzea, kultura, Udaltzaintza eta Obra eta Zerbitzuetako lansailetako arduradunarekin harremanetan jartzea.

18.- Akordio honen berri ematea udal Obra eta Zerbitzuak eta Kontuhartzailletza eta udaltzaingoari.

Hala agindu eta sinatu dut, Andoainen sinadura datan.

IDAZKARIA

ALKATEA

